

# DEKALOGOIA

## – NOLA JUSTIFIKATU ETA EBALUATU ZURE KULTURA PROIEKTUA –

**“Ebaluazioa** prozesu sistematiko bat da, eta horren bidez, kultura-proiektu baten emaitzei (aurreikusitakoak edo aurreikusi gabeak) eta funtzionamenduari buruzko beharrezko informazioa lortzen da, helburuak zenbateraino lortzen diren eta ekoizpena nola garatzen den jakiteko, eta, horrela, proiektu hori bideratzeko erabaki egokiak hartu ahal izateko, haren edozein alderdi aldatuz”. (Roselló Cerezuela, 2019).

1. Ebaluazioa eta justifikazioa elkarlotuta dauden kontzeptuak dira, batak bestea barne hartzen du. **Ebaluazioak** gai ezberdinei buruzko erabakiak hartzeko informazioa eskainiko digu, kontuak ematea erraztu (justifikazioa bera) eta bereziki ikasteko eta proiektuak hobetzeko aukera emango digu. Dirulaguntzen **justifikazioa** pertsona/erakunde onuradunaren betebeharretako bat da, nahitaezkoa, dirulaguntza ematen duen organoaren egiaztapen-jarduketegi hasiera ematen diena. “Beste batentzat” egiten dugu, kasu honetan erakundearentzat.
2. Joera dugu justifikazioan (eta ebaluazioan ere) proiektuen amaieran pentsatzea eta **hasieratik kontuan izan beharko genukeen alderdia** da. Oinarriak ondo irakurri behar dira, zer eskatzen zaigun aurreikusi, eredurik dagoen ziurtatu eta proiektuaren garapen osoan presente izan. Horrek, informazioa sailkatua izatea eta beharrezko dokumentazioa aurrez prestatzea ahalbidetuko digu.
3. Laguntzaren arabera aldatu daitekeen arren, gehiago handi batean, justifikatzeko, **jardueren memoria bat, memoria ekonomiko bat eta bestelako dokumentuak (irudi grafikoak...)** aurkeztu beharko ditugu. Hau da, egingo zenuela esandako hori egin duzula azaldu, diru kontuak aurkeztu eta horren testigantza jasotzen duten irudiak/bstelako baliabideak azaldu.
4. **Memoria ekonomikoan, gastu errealeen aurrekontua, kostuen laburpen taula bat eta kostu horien agiriak aurkeztu beharko dituzu.** Kontuan izan: ereduak egon daitezke ala guk sortu beharko ditugu. Sarrerak eta gastu-aurrekontuetako kopuruak berdinak izan behar dute. Aurrekontu desbideratzeak azaldu egin behar dira. Aurrekontuaren % 100 justifikatu behar da, ez laguntzaren % 100, eta dokumentu “ofizialak” aurkeztu beharko ditugu. Proposamena egin zeneko kontzeptu berberak erabiltzea garrantzitsua da. Kontzeptu identifikagarriak: gauza bera jarri Excel/ Word-ean eta fakturan. Kontuz BEZ kengarriarekin eta diruz lagundu ezin diren gastuekin.
5. **Jardueren memoriak** jaso beharrekoa ere oinarrietan zehazten da. Ez da errepikatu behar aurkeztutako dossierrean jaso genuen guztia. **Alderdi garrantzitsuenen laburpena egin daiteke, eta emaitzak azaldu.** Irudiak eta ikusizko euskarriak erabili nahi baditugu, edo komunikabideetan egondako presentzia adierazi nahi bada, hobe estekak txertatzea.
6. Ebaluazioak bestelako ariketa bat eskatzen du. **Ebaluazioan murgildu nahi badugu, arreta berezia eskaini beharko diogu, proiektuaren inguruan hausnartu, ebaluazio prozesua planifikatu, neurketa sistematizatu. Plangintzak galdera batzuei erantzun beharra izatera eramango gaitu.** Zer da neurtu nahi dudana? Nola neurtuko dut? Nork neurtuko du? Noiz? Adierazleak definituko ditugu? Kualitatiboak edo/eta kualitatiboak? Zein herramienta erabiliko ditut? Monitorizazio sistemaren bat definituko dut?



Irudia. Silvia López de Lacalle Gurruchaga

### **Nola justifikatu eta ebaluatu zure kultura proiektua.**

**K bulegoa**-k prestakuntza-saio bat antolatu zuen 2024ko irailaren 19an Gipuzkoako kultura-eragileentzat, proiektuak egiaztatzen, neurtzen eta ixteko funtzezko trebetasunak eskuratzeko aukera emanez.

Enara Garciarekin batera kultur proiektuak hurrengo mailara eramateko beharrezko tresnak landu ziren.



### **K bulegoa Ibilbideak**

Kultura-proiektuak prestatzeko eta indartzeko mugarri monografikoak

7. Arrazoi ezberdinek eramaten gaituzte ez ebaluatzera: emaitzei beldurra, ez dakigu zein den modu fidagarrian egiteko metodoa, informazioa partekatzeak ziurtasun-gabezia sortzen digu... **Ez izan beldur galdetzera, helburuak berrikustera, neurtzera, proiektuan parte direnak inplikatzen, publikoaren iritzia jasotzera, taldean hausnartzera...** Begirada ezberdinek aberasten dituzte proiektuak.

8. Askotariko **tresnak** erabili ditzakegu ebaluatzeko, gure proiektu eta ebaluazio planteamendurako egokienak aukeratu beharko ditugu: informazio iturriak kontsultatu, neurketak burutu, bertaratze datuak jaso, inkestak, elkarrizketa pertsonalak, eztabaida taldeak, behaketa (parte-hartzailea ala ez) ... Ahaztu gabe aplikazio batzuk eskaintzen duten bapatekotasuna bereziki publikoak parte hartzen duen proiektuetan (mentimeter esaterako).

9. Proiektu baten ebaluazioan **eremu ezberdinak ebaluatu daitezke**: testuingurua bera, helburuak eta emaitzak, proiektuaren definizioa (estrategia, kudeaketa eredua...), garapena eta inplementazioa edo inpaktua (epe ertain-luzeko eragina). **Adierazle kuantitatibo eta kualitatiboak finkatu daitezke.**

10. Ebaluazioa gai arrotz bezala senti dezakegu, baina **naturalki badugu joera gure proiektuen inguruan hausnartu eta hobetzeko aukerak bilatzeko. Baliatu motibazio hori, denbora bat eskaini eta planteamendu xume batetik hasi.** Pixkanaka, ebaluatzearen ohitura barneratzen den heinean, eta duen onura sentitzen denean, konplexutasun handiagoetara jotzeko aukera bilatuko duzu.